

Funtsezko elkarteak

Gure iritziz, enpresa garatu ahal izateko eta pertsona gehiagori zabaltzeko, aliantzak beharrezkoak dira. Eskaintzen ditugun ondasun eta zerbitzuak kontuan hartuta, hauek dira gure ustez bidera ditzazkegun aliantza egokienak:

Gure produktuak gure bezeroei iristeko, Correos eta DHL-rekin lan egingo dugu. Arropa eta antzeko produktu txikiak bidaltzeko Correosek eskaintzen duen zerbitzuaz baliatuko gara. Produktu handiagoak bidaltzeko edo eskaria handiagoa denean berriz, DHL-ren zerbitzuak erabiliko ditugu.

Arropari dagokionez, hainbat enpresen laguntzarekin ekoiztuko ditugu. Adidas, Nike, Puma, Reebok, Asics eta New Balance enpresei gure diseinuak bidaliko dizkiegu beraiekin kolaborazioak egiteko eta beraien ekoizpenaz baliatzeko. Horrek gure produktuen prezioak igotzen lagunduko digu eta gainera, beste marken konfidantza lortuko dugu bezeroekiko, hauek marka ezagunak baitira.

Zerbitzuak mugikorreko aplikazio baten bidez eskainiko ditugunez, beharrezkoa zaigu aplikazioa garatuko eta mantenduko duen enpresa baten aliatua izatea. Horretarako, Vanadis aukeratu dugu, izan ere, behar ditugun prestakuntzak eskaintzen ditu eta gure aplikazioa garatzeko prozesua kontrolatuko du. Bestetik, etorkizunean aplikazioan arazoren bat balego, hura konpontzen lagunduko digu enpresa berak.

Suplementazioari dagokionez, mota askotako produktuak salduko ditugu, haien artean: proteina, creatina, multibitaminikoak, "preentrenoa", etab. Produktu hauek, MyProtein eta Prozis enpresek hornituko dizkigute. Horrela, gure merkatua zabalduko dugu eta kirolari gehiagoetara iritsiko gara produktu gehiago eskainiz.

Kirola egiteko produktuei dagokionez, Rogueren laguntzaz ekoiztuko ditugu. Hauei esker, diskoak, barrak eta hainbat makina salduko ditugu.

Gure produktuak saltzeko, web-a erabiltzeaz gain, hiru enpresaren laguntzarekin salduko ditugu produktuak. Forum Sport, Decathlon eta JD Sports besteak beste. Hauek, gure produktuak fisikoki saltzeko aukera ematen digute, horrela helduagoak diren pertsonak edo online erosteko aukera ez dutenek, hiru leku hauen erabilera egin dezakete.

Azkenik, gure ideiak finantzatu ahal izateko, banketxe baten zerbitzuak erabiliko ditugu. Gure kasuan Laboral Kutxa erabiliko dugu, izan ere, eskaintzen duen zerbitzuak bat egiten du gure beharrekin.

Ander Aizpurua, Ander Alonso, Olaia Oca, Eñaut Romero eta Jon Sierra